

KULTURAREKIN KUKUKA

Karlos del Olmo

Jakob Von Gunten

Robert Walser

Itzultzailea: Edorta Matauko

Erein, Narratiba saila

2005

Gabon Egunean, 1956.ean, Suitzako Herisau herrian ume batzuek gorpu heriotzaraino izoztu bat topatu dute zelai elurtu batean. Erraz identifikatu dute poliziek: Robert Walser suitzarra da, hirurogeita hemezortzi urteko idazlea, eroetxera itzultzeko bidea galdua. Aspaldiko batean gizonak ospe apur bat batu omen zuen Alemanian eta Suitzan, baina urteak dira idazteari —edo argitaratzeari— utzi diola. Mende laurdena eman du zoroetxetan. Begiak eta baraila zabalik datza, zeri begira eta zer esaka?

Herio modu ezinago bakarti horrek, haren ustekizunezko eromenak —medikuek ezin izan zuten inoiz argitu benetan gaixorik zegoenez— eta hildakoan topaturiko idazki sekretuek habetu dute Walser eskandaluraino ahazturiko jenioa izan delako legenda. Hainbat ofiziotan saiatu da goi mailako alemana ikasi eta gehien bat aldaki hartan idazten duen gizona. Lanbide gehienetan kale egiten du. Idazletzan, azkenik, txokoa topatuta, nekez lortzen du metropoliko intelektual gisakoa izatea: edanez gero, berehala zakartu egiten da, goi klasekoa ez dela erakusteraino.

Lau eleberri idatzi ditu gaztetan, hiruk baino ez dute argia ezagutu, berak suntsitu du laugarrena. Ezagunena, *Jakob von Gunten*, ikasle harrigarri baten eguneroko moduko bat da. Heziketa bitxi baten gaineko gogoetak eta giza harreman harrigarrien albiste ematen ditu. Borondatez aukeraturiko barnetegi estrainio hartan, umiltasunean hezte besterik ez dago, apal izaten ikastea eta apal irautea. Otsein izateko prestatzea, halako galtzagorri moduko bat izateari utzi barik.

Zein du misterio karakter literario moduan aurrekaririk ez bide duen Jakobek? Dostoievski, Rousseau, folklore germaniarra..., halere, Kafkak halako kutun duen pertsonaia prototipiko hura guztiz berezia da hogeigarren mendeko literaturan. Walser ez da idazle politiko nabarmena. Baina, zelan ez lotu Hitlerren *alkandora arreen* sostengu izan ziren burges txikiak eta pertsonaiaren ezaugarriak: zibilizazioari eta haren balioei buruzko zinismoa, adimenarenganako mesprezua, munduaren funtzionamenduaren gaineko uste sinpleak, obeditzea bertuterik bikainena dela sinestea, destino heroikoaren deia zain

egotea, norbera aspaldiko borrokalari leinu baten ondorengo aldarrikatzea, gizonezkoen barnetegian halako gustura bizitzea, bihurrikerietan atsegina topatzea?

Liburuak ez du hiriaren izenik esaten, baina errazto igartzen da Berlin hasieratik bertatik. Idazlearen beraren bizimoduaren oihartzuna? Alemaniara aldatuko da bizitzera, han ere nazkatu eta aberrira itzultzeko, bere zoroak bizi dezan. Eromenaren esku gelditu denean, sarritan ahalegindu da bere burua hiltzen, baina "ez naiz gauza ezta urkatzeko lakioa behar bezala prestatzeko ere".

Euskal irakurlea zorretan dago Robert Walser gure bilaldera ekarri duten itzultzailearekin eta argitaletxearekin. Halere, XXI. mendean gaudela, oraindik itzultzailearen izenik ez da agertzen liburu azalean. Erraz ahazten dute batzuek itzultzailea idazle ere badena, jatorrizkoa haren bitartez jasotzen duela irakurleak. Edorta Matauko ez da hasberria euskal itzulpenean (*Autoa, Leviatana*), eta honako honetan ere lan esker ga egin duenik ezin uka daiteke, nahiz eta edizioan akatsen bat edo beste agertzen den.

Robertek dioenez: "Neure burua besterik ezin dut jasan. Lar badakit ere, asko ikusia naizen arren, ezer ez dut kontatuko ezertaz ere; ez nago hemen idazteko, zoratuta egoteko naiz ni hemen".